

ZIURTAPEN POLITIKA
ZIURTAGIRI PROFESIONALA

Erreferentzia: Profesionalaren ziurtapen-politika.
Bertsio zk.: v 1.2
Data: 2016ko abenduaren 22a

© IZENPE 2016

Dokumentu hau IZENPErena da. Kopiarik egitekotan, osorik kopiatu daiteke soilik

■ **Beato Tomás de Zumárraga**
71 - 1ª Planta
01008 Vitoria - Gasteiz

www.izenpe.com
info@izenpe.com
Tel.: 945 06 77 23



AURKIBIDEA

1	DESCRIPCIÓN DEL CERTIFICADO	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
1.1	DEFINICIÓN.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
1.2	SOPORTE Y NIVEL DE SEGURIDAD	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
1.3	ÁMBITO DE USO.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
1.4	IDENTIFICACIÓN DEL CERTIFICADO.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
2	CICLO DE VIDA DEL CERTIFICADO	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
2.1	VERIFICACIÓN DE LA IDENTIDAD Y SOLICITUD DEL CERTIFICADO.	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
2.2	ACREDITACIÓN DE LA ORGANIZACIÓN Y FACULTADES DEL SOLICITANTE	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
2.3	PROCEDIMIENTO DE EMISIÓN Y ENTREGA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
2.4	VERIFICACIÓN DEL CERTIFICADO	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
2.5	REVOCACIÓN DEL CERTIFICADO	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
2.6	RENOVACIÓN DE CERTIFICADOS.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
3	IMPORTE.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
4	PERFILES DE CERTIFICADOS	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
5	CAMBIOS	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
5.1	GESTIÓN DEL CAMBIO	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
5.2	VERSIÓN 1. 0	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
5.3	VERSIÓN 1.0 A VERSIÓN 1.1	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.



Dokumentu honek Profesioanalaren ziurtagiriei dagokien ziurtapen-politika jasotzen du. *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE SA* enpresak (aurrerantzean IZENPE) jaulki du ziurtagiri hori.

Politika horren helburua da IZENPEren *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* mota horretako ziurtagirietarako definitutakoa zehaztea eta osatzea.

1 ZIURTAGIRIAREN DESKRIBAPENA

1.1 Definizioa

Jaulkipen-esparruaren arabera, IZENPEk honelako ziurtagiriak jaulkiko ditu:

– *Profesionala - entitate publikoetako langileak*

Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen esparruan jaulkitzen da.

Sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatu gisa konfiguratzen da, *1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Araudian* ezarritakoaren arabera (aurrerantzean eIDAS).

Ziurtagiri horrek identifikatzen du Administrazio Publiko jardulea, harpidedun gisa, baita bertan kargu edo lanpostu bat betetzen duen pertsona ere.

Administrazio harpidedunak haren kide diren gakoek edukitzaileak identifikatzeko funtzioak bete ditzake.

Esparru horretan, IZENPEk goitizena duten ziurtagiriak jaulkiko ditu, Ogasuna eta Administrazio Publikoak Ministerioaren *Ziurtagiri elektronikoaren profila* dokumentuan zehaztutakoaren arabera.

– *Profesionala-Korporatiboa,*

Sektore publikoko zein arlo pribatuko erakunde baten esparruan jaulkitzen da.

Motak.

➤ *Profesionala-Korporatiboa, kualifikatua*

Sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatu gisa konfiguratzen da, eIDASen arabera. Erakunde jardulea ziurtagiriaren harpidedun gisa identifikatzen du, eta bertan kargu edo lanpostu bat duen pertsona gakoek edukitzaile gisa identifikatzen du —gakoek zaintzaz erantzungo du—.

➤ *Profesionala-Korporatiboa, kualifikatu gabea*

Erakunde jardulea ziurtagiriaren harpidedun gisa identifikatzen du ziurtapen-maila ertainarekin, eta bertan kargu edo lanpostu bat duen pertsona gakoek edukitzaile gisa identifikatzen du.

Ez da kualifikatutzat hartzen, eIDASen arabera.

Honela ulertuko dira:



- Harpideduna; Ziurtagirian identifikatutako Administrazio Publikoa edo entitatea.
- Gakoen edukitzailea: sinadura digitaleko gakoak dituen eta horiek zaintzeaz arduratzen den pertsona fisikoa, ziurtagirian identifikatutakoa.
- Eskatzailea: ziurtagiria antolakunde baten —Administrazio Publiko baten eta/edo entitate baten— izenean eskatzen duen pertsona.

Politika honetan barnean hartzen diren ziurtagiri guztiek 4 urteko iraunaldia dute.

1.2 Euskarrria eta segurtasun-maila

Profesional motako ziurtagiria hainbat euskarriritan jaulkitzen da, eta zehaztutako ziurtapen-mailen arabera. Honelakoa izan daiteke:

ZIURTAGIRI PROFESIONALA	EUSKARRRIA	ZIURTATZE MAILA eIDAS
<i>Entitate publikoko langilea</i>	Txartela/Token USBa (txip kriptografikoa)	Handia
	Softwarea (IZENPEren ziurtagirien edukitzailea)	Oinarrizkoa
<i>Entitate publikoko langilea, goitizena duena</i>	Txartela/Token USBa (txip kriptografikoa)	Handia
<i>Korporatibo kualifikatua</i>	Txartela/Token USBa (txip kriptografikoa)	Handia
	Softwarea (IZENPEren ziurtagirien edukitzailea)	Handia
<i>Korporatibo kualifikatu gabea</i>	Txartela/Token USBa (IZENPEren ziurtagirien edukitzailea)	Ez dago erabilgarri (kualifikatu gabea)

1.3 Erabilera-esparrua

Gakoen edukitzaileak ziurtagiria erabiliko du ziurtagiria erabiltzea onartzen duten hirugarren batzuek eskainitako zerbitzuetan, IZENPEren *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* (ZPD) definitutako baldintzekin eta mugekin —www.izenpe.com web-orrian argitara dago ZPDa—.

1.4 Ziurtagiria identifikatzea

Ziurtagiri horiek identifikatu ahal izateko, IZENPEk honako objektu-identifikatzaile (OID) hau esleitu die.

- eIDAS profil berriak.

ZIURTAGIRI PROFESIONALA	OIDa
<i>Entitate publikoko langilea - eIDAS_txartela</i>	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.1
<i>Entitate publikoko langilea - eIDAS_softwarea</i>	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.2
<i>Entitate publikoko langilea, goitizena duena_sinadura</i>	1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.1
<i>Entitate publikoko langilea, goitizena duena_kautotzea</i>	1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.2
<i>Entitate publikoko langilea, goitizena duena_zifratzea</i>	1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.3
<i>Korporatibo kualifikatua_txartela</i>	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.1
<i>Korporatibo kualifikatua_softwarea</i>	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.2

➤ eIDAS aurreko profilak.

ESPARRUA	ZIURTAGIRI KORPORATIBOA	OIDa
Administrazio publikoa	<i>Erakunde publikoetako langileak</i>	1.3.6.1.4.1.14777.4.1
	<i>Eusko Jaurlaritzako langileak</i>	1.3.6.1.4.1.14777.7.1
Korporatibo publikoa	<i>Korporatibo publiko onartua</i>	1.3.6.1.4.1.14777.4.2
	<i>Korporatibo publiko onartu gabea</i>	1.3.6.1.4.1.14777.1.1.1
Ziurtagiri korporatibo pribatua	<i>Korporatibo pribatu onartua</i>	1.3.6.1.4.1.14777.2.2
	<i>Korporatibo pribatu onartu gabea</i>	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.2



2 ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA

2.1 Identitatea egiaztatzea eta ziurtagiria eskatzea

✓ Ziurtagiri kualifikatu gabea.

Ziurtagiri kualifikatu gabearen kasuan, ez da beharrezkoa izango eskatzailearen nortasuna egiaztatzea, ezta gakoan edukitzailearena ere; alabaina, eskaera sinatu bat beharko da.

✓ Ziurtagiri kualifikatua

Eskatua

➤ Aurrez aurre.

- Eskatzailea eta gakoan edukitzailea www.izenpe.com web-gunera sartuko dira eta *eskaeraren* formularioa osatuko dute.
- Ziurtagiriaren zenbatekoa ordainduko da, hautatutako ordaintzeko aukeraren arabera.
- Eskatutako dokumentazioa.
 - IZENPEk www.izenpe.com web-gunean argitaratuko du ziurtagiria jaulki aurretik zer entitatek bidali behar duten beharrezko informazioa IZENPE SAREN helbidera —TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ—.
 - Dokumentazioa baliozkotu ondoren, eskatzailea erregistro-entitatean bertaratuko da, IZENPEk emandako hitzorduan.
 - Hala egin ezean, eskatzaileak erregistro-entitatean emango du dokumentazioa, www.izenpe.com web-gunean hitzordua finkatu ostean.
- Gakoan edukitzailea honela identifikatuko da,
 - Espainiako hiritarra bada, indarrean dagoen NANA, pasaportearen edo gida-baimena.
 - Europar Batasuneko/Europako Esparru Ekonomikoko hiritarra bada, AIZ eta indarrean dagoen pasaportearen edo haien herrialdean baliokidea den nortasun-agiri nazionala.
 - Europar Batasunaz kanpoko hiritarra bada, AIZ eta pasaportearen.

Identifikazioa ezin bada goian adierazitako moduan egin, IZENPEk zehaztuko du kasuak kasu identifikaziorako beharrezkoa den dokumentazioa.

Eskatzaileak identifikazio-dokumentuen fotokopia gehitu beharko du, edo IZENPEri baimena eman beharko dio datuak Administrazio eskudunaren aurrean egiaztatzeko, eskaera-formularioaren bitartez.

- IZENPErekin aginduzko lege-tresna harpidetu duen *Administrazio eskatzailearen aurrean* egin ahal izango da gakoan edukitzailearen identifikazioa.
- Udal-esparruan eskatutako ziurtagirien kasuan, udalaren idazkariaren aurrean egin ahal izango da eskatzailearen identifikazioa, fede-emaile publikoaren funtzioen esparruan.



- Gakoen edukitzaileak *ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* bete eta sinatuko du, eta ziurtagiria erabiltzeko *terminoak eta baimenak* onartuko ditu.

➤ Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren sinadura notarioak egiaztatzea.

Eskatzailea

- *Ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* osatu eta sinatuko du.
- Ziurtagiria erabiltzeko *terminoak eta baldintzak* onartuko ditu.
- Notarioak eskaeraren sinadura legitimatuko du.
- Ziurtagiriaren zenbatekoa ordainduko du, hautatutako ordaintzeko aukeraren arabera.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du IZENPE Saren helbidera —TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ—.

➤ Edo indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu bidez.

- Eskatzaileak eta gakoen edukitzaileak, www.izenpe.com web-gunera sartu, eta *ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* sinatuko dute eNAN bidez edo IZENPEk jaulkitako pertsona fisikoko ziurtagiri kualifikatu bidez.
- Gakoen edukitzaileak ziurtagiria erabiltzeko *terminoak eta baldintzak* onartuko ditu.
- Ziurtagiriaren zenbatekoa ordainduko da, hautatutako ordaintzeko aukeraren arabera.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du IZENPE Saren helbidera —TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ—.

IZENPEk www.izenpe.com web-gunean argitaratzen du erakunde bakoitzak bere konfigurazio juridikoaren arabera jarri behar duen dokumentazioa.

2.2 Erakundearen egiaztapena eta eskatzailearen ahalmenak

IZENPEk www.izenpe.com web-gunean argitaratzen du erakunde bakoitzak bere konfigurazio juridikoaren arabera jarri behar duen dokumentazioa.

2.3 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura

IZENPEk ziurtagiria jaulkitzeari eta emateari ekingo dio,

IZENPEREN EDUKITZAILEA

1. IZENPEk posta elektronikoki bidez bidaltzen dio gakoen edukitzaileari, eskaeran adierazitako helbidera, hutsik dagoen edukitzaile bat.
2. Gakoen edukitzaileak edukitzailea hasieratuko du eta gako-parea eta eskaera teknikoa (csr) sortuko du.
3. Gakoen edukitzaileak IZENPEri bidaliko dio eskaera teknikoko fitxategia (csr).
4. IZENPEk ziurtagiria jaulkiko du, gakoen edukitzaileak emandako eskaera teknikoa erabilita.



5. IZENPEk eskaera-formularioan adierazi den helbide elektronikora bidaliko du ziurtagiria.

TXARTELA / TOKEN USBa

➤ Bertaratuta ematea.

IZENPEk eskatzaileari edo hirugarren baimenduari emango dio ziurtagiria, PINa eta hori desblokeatzeko kodea (PUK) —hirugarren baimenduak baimen sinatua eta notarioak legitimatua aurkeztu beharko du—.

➤ Bertaratu gabe ematea.

IZENPEk bi bidalketa bereizitan igorriko ditu ziurtagiria eta gakoak *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako posta-helbidera, eta bidalketaren gastuak entitate eskatzailearen kargura izango dira.

IZENPEk egiaztatuko du bidalketa gakoan edukitzaileari soilik ematen zaiola.

2.4 Ziurtagiria egiaztatzea

Sinatzaileak, ziurtagiria jaulki, eta 15 egun baliadun izango du behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko, eta, beharrezkoa bada, IZENPEri funtzionamendu-akatsak dituela jakinarazteko.

Funtzionamendu-akatsak kausa teknikoen ondoriozkoak direnean (ziurtagiriaren euskarriaren funtzionamendu txarra, ziurtagiriaren errore teknikoa, eta abar) edo IZENPEri egotz dakizkiokeen ziurtagiriko datuetako erroreak direnean, orduan soilik ezeztatuko du IZENPEk ziurtagiria eta beste bat jaulkiko du, ondoriozko gastuak bere gain hartuta.

2.5 Ziurtagiria ezeztatzea

➤ Ziurtagiria ezeztatzeko eskaera

Honako hauek eska dezakete ziurtagiria ezeztatzea:

- Harpidedunak, entitate hartzailearen legezko ordezkariak, langileen arduradunak edo aurrekoek baimendutako hirugarren batek dute ziurtagiria ezeztatzea eskatzeko baimena.
- Gakoan edukitzaileak.
- IZENPEk, administratzaileek eta erregistro-entitateek baimena dute azken entitateko harpidedun-ziurtagirien ezeztapena eskatzeko.

➤ Prozedura.

Ziurtagiria edozein unetan ezeztatu ahal izango da, eta ziurtagiria lapurtu edo galdu denean beti.

Eskatzaileak honako bide hauetatik ezeztatu ahal izango du ziurtagiria:

- Bertaratuta, IZENPEri www.izenpe.com web-gunean hitzordua eskatuta.
- Edo posta bidez, ziurtagiria ezeztatzeko eskaera sinatuta eta notario aurrean legitimatu ostean bidalita.



- Telefono bidez, 902 542 542 telefonora deituta.
- On line, www.izenpe.com helbidean.

Telefono bidez eta on line ezeztatu nahi izanez gero, identifikaziorako beharrezkoa izango da:

- ✓ Telefono bidez identifikatzeko pasahitza.
- ✓ NANA /AIZ.
- ✓ Entitatea.

➤ Ezeztatzeko arrazoiak

Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke (www.izenpe.com).

2.6 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria berritu behar izanez gero, eskatzaileak ziurtagiriak jaulkitzeko ezarritako prozesua jarraitu beharko du.

3 ZENBATEKOA

IZENPEk urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak bere www.izenpe.com web-gunean.

Ordaintzeko eskaintzen diren aukerak:

- Elektronikoki sinatutako jaulkipen-eskaeraren kasuan,
 - On line ordainketa, ordainketa-pasabidearen bitartez.
 - Ordainketa-agiri bidez, banku-entitatean aurkezteko.
- IZENPEren Erregistro Entitatera bertaratu eta ordainduta, banku-txartel bidez.
- IZENPEk ordainketa modalitate desberdinak ezarri ahal izango ditu, berariazko proiektuen arabera.

4 ZIURTAGIRIAREN PROFILAK

IZENPEk www.izenpe.com web-gunean ematen ditu argitara ziurtagirien profilak.

5 ALDAKETAK

5.1 Aldaketaren kudeaketa

Dokumentu honetan egiten diren aldaketak IZENPEren Segurtasun Batzordeak onartuko ditu.

Berariazko dokumentazioaren bertsio eguneratuak www.izenpe.com helbidean kontsultatu ahal izango dira.

5.2 1.0. bertsioa

Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak

- eIDAS Araudira egokitzea.
- Eskatzen den dokumentazio identifikatzailea.
- Erabiltzeko terminoak eta baldintzak.



Argibideak	
Formatua eguneratzea	
Ezabatzeak	<ul style="list-style-type: none">➤ Entrega- eta onarpen-orria.➤ Erabiltzeko baldintzak.➤ Harpidedunaren kontratua.

5.3 1.0. bertsiotik 1.1. bertsiora

	EPIGRAFEA / ARGIBIDEAK
Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	<ul style="list-style-type: none">➤ 1.1. Definizioa: <i>Profesionala-Entitate publikoko langilea, goitizena dutena, ziurtagiriak jaulkitzea.</i>➤ 1.2. Euskarria eta segurtasun-maila. Ziurtagiri profesionalak txartela/token USB euskarrian eta softwarean jaulkitzea.➤ 1.3. Erabilera-esparrua: ziurtagiri profesionalen erabilera-esparrua zuzentzen da.➤ 1.4. Ziurtagiriaren identifikazioa: beste OID bat esleitzen da txartela/token USB euskarrian jaulkitako profesional motako ziurtagirietarako.➤ 2.1. Identitatea egiaztatzea: Europar Batasunaz kanpoko hiritarrei eskatzen zaizkien identifikazio-agiriak eguneratzea: AIZ eta pasaporteak.➤ 3. Zenbatekoa: hainbat ordainketa modalitate aurreikustea, berariazko proiektuen arabera.
Argibideak	
Formatua eguneratzea	
Ezabatzeak	<ul style="list-style-type: none">➤ 1.1. atala. 1.0 bertsioak hiru ziurtagiri mota definitzen zuen, entitate hartzailea sektore publikokoa izan edo sektore pribatukoa izan kontuan izanik.➤ 1.1. bertsioak bereizketa hori ezabatzen du.➤ 1.2. atala. Euskarriak: HSM eta nabigatzaile euskarriko ziurtagiriak jaulkitzeko aurreikuspena ezabatzen da.➤ 1.5. atala. Xedapen orokorrak: ZPDan araututako alderdiak hartuko dira aintzat.